

Itsukeriak

TXILLARDEGI



MADRILEKO

atentatuak bazterrik inarrosi bide ditu. 'Dena amaitutzat' ematen zen momentuan, eta bake baketsua babide zetorkigun une zorionsuan, Herri Generalaren hilketak berriro plazaratu ditu Espainiako hiriburuan bertan eskual arazo odoltsu honen iraupena eta larritasuna. Frantziar «le dernier quart d'heure de FLN» errepikatutako ohi zen bezala, alde honetan ere behin eta berriro ikusten ari gara «el último reducto radical» hori mirariz bezala *suntsitzen* eta 'arapizten'.

Kusmolde ofizialaren arabera liskar egoera hau ez da Euskal Herrian sekula santan ezagutu. ETA azaldu arte hemen bekaen bizi omen ginen, irribarez, inolako istulirik gabe, geure 'ohitura garbi' famatu horien errespetu otxan-otxanean.

ETA azaldu, ordea, eta gure Historia gutzia ukatuz eta hondatuz, bortizkeria azaldu omen zen: borroka hartuta, gerrilla-taldekak han eta hemen, espainiar militarrek gure mendietan barrena sakabanaturik, eta abar.

Eta eskema hau, eskema *arrasfaltua*, propaganda ofizialaren laguntzare, zabalzuten ere hasia da zenbait 'ezuko' gizarte gune berezitan. Eta, ondorioz, beste hau: «ETA azkenetan dago. Aurki dukegu pakea». /p/ handi batez idatzia.

Hautu dezagun esalditxo bakar bat Extramiana-ren 'Historia de las guerras carlistas' liburutik. Eta 1873ko egoeraz mintzo delarik, hau irakur daiteke: «El rasgo dominante es la adhesión a los legitimistas (karlistak, alegia). Surgen *bandas armadas*, en muy poco tiempo, en las cuatro provincias» (174. orri.).

Zergatik gelditzen ziren trinak Eboko Mirandan 'banda harmatuak' zirela-ta, honantzago ezin hurbildurik? Zergatik ez zen Murcian eta Zamoran gauza bera gertatzen? Zergatik gaude puntu bertsuan ehun urte berandugoa?

Bada garaia galdera hauek 'banda armada' delakoen suntsiera espero dutenen artean aurrerari egiteko.

Baita geure aldetik ere hau idarokitzeko: azken funtsean, ez ote dago bada hemen *nazio ukatu bat*?

Aurkariak geu

JOSU LANDA



ZER koloretakoa da Euskal Herria? Jukutria nabarmena duzu galdera, ia simplekera, eta bestenez ere, segunduko bakarrek tartean erantzun beharrek. Zeure erantzuna «berdea» baldin bada, ez zaitetz kezkatu, gehiengo zitearren kontsolabide eta babesa bai-taukazu zurekin.

Euskal Herriaren berde-ezaugarria aipatzean Oton edo Erriberriko herriartak zer sentituko duen konturatzek ez dirudi axolagarri, eta agian gaur artekoa ontzat ematea izango da onena, nahiz eta ustez berdea dena gutxienez «hori-berdea» izan benetan. Hain zuzen, berdearen afera horretan, beste askotan bezala, mendi eta kosta gailundun egin zaizkie, inposatu kasik, lautada eta erriberari. Dena dela, bali-teke Tuteran berdetasuna erreibindikazio mo-dua izatea, Bardeak adibidetzat, garai batean izan eta *kendu* ziguteneraren ororigari. Aurka-kotasunean ohituta hezi baikara. Antzekoa izan zen, kolorearena ezetik, formarena ere, espainiarrek harrotutako «zenen-larrua»-ren mitoari aurre eginez, gerraurreko abertzaleek Euskal Herria *bibotz formakoa zela asmatu* eta irakatsi zutenaren. Aurka ekin beharra. Gaztela horia, eta gurea berdea.

Haatik, gezur txiki honen zentzua kili-kolo dabilkigu. Eskizofrenia txikiak ez dira lamiak, alferrekoak ez direnean, eta orango hau irabazi gutxiakoa da. Hortxe dago ikurrina, konparazio batera: gorria, zuria... eta berdea. Ez da kasualitatea ikurrina Bizkaitan sortu izana, lau-tadarrak edo erriberarik ez dagoen probintzian. Banderak aldatzen hasi gabe, intereskoa liteke beste ikus txiki askotan tonu horixkaren bat edo beste jartzen hasia. Garai berriek mito berriak behar dituzte. Aurkariak, tira, baina traizitu ahalik eta txikienak eginda.

EL CORREO ESPAÑOL

EA eta EUE

Nola koalizio gisa hala banan-banako proiektu politiko gisa EA-EU Eren posibilitateetako asko jokoan dauden hauteskunde autonomikoetarako urtebete baino gutxiago falta denean, zabalzen ari diren desadostasun irudia beraitzat kaltegarria baino ezin da izan. Are gehiago, bali-teke horretan interesa duten hainbatentzat mukeraldi horiek zein bere zatiketarik sortutako bi alderdien bategiteari buruz egin zituzten porrot iragarpen gaiz-toen a posteriori lortutako frogaz itzate. Hala ere, EUE ezin du EArekiko lotura hautsi hurrengo hauteskundeetan instituzioetatik desagertzeko arriskua izan nahi ez bada eta, bitartean, Garaikoe-txearen alderdia, EUE ondoan izan gabe, Herri Batasunarekiko arras egoera mugakide desero-soan geldituko litzateke.


EDITORIALA

Navarra

Intsumisoak eta umiliatuak

Argi gera bedi, bada, intsumi-sioa ez dagoela Estatuan gizarte zerbitzuren bat egitearen aurka (nahiz eta beste kontu bat izan hori merkatu ekonomia gutzten duen Estatu batek eskatzea...).

HEMEROTEKA



OROZ / DIARIO DE NAVARRA

Ukatu, ordea, bai ukatzen duela —eta hau da funtsezkoa— ad-ministrazio militarrek arautzen duen eta soldaduzaren izenean eskatzen den gizarte zerbitzuaz: ukatu, *gizarte zerbitzu zibilizat*an beharko lukeena *gizarte zerbitzu militarizatua* balitz bezala bete behar izatea ukatzen du. Hitz gutxi-tan; intsumisoak ez du milita-raren *ordezkoa* litzatekeen zerbitzu sozial edo zibil bat eska-tzen, militararekiko *alternati-bi*boz litzatekeena baizik. Horren ondorio da, nolabait esateko, intsumi-sioa eragozle kontse-kuentea izatea: eta bere intsumi-sioa *kontzientzi eragozpenaren moduko* zerbait izatea, nahiz eta lege tamalgarri baten ondorioz *desobediencia zibila* beste ir-tenbiderik ez izan. Horrexegatik, eragozpena, egun, atzo delitua zen eskubidea den bitartean, intsumi-sioa, egun, bihar egite-rik izango ez den delitua da. Esta-tuak beste armada mota bat era-bakitakoan, kontzientzi eragoz-penak ez du zentzurik izango. Aukera hori egiten duen artean, eragozpena behar bezala arau-zen (eta zerbitzu zibil orokor

baten bidez bideratzen) badu, intsumi-sioak desagertzera jo beharko du. Ez asko, ziur aski, baina bake pixka bat lortuko da.

AURELIO ARTETA

DEIA

Georgia, Boris Ieltsinen beste garaipen bat

Badirudi Errusiako lehenda-kariak onartu egin dituela azken asteotan Xevardnadzek eginda-ko laguntza eskaerak eta atzo bertan, Errusiako Kanpo Ara-zoetarako ministerioi iturriek beren tropek Armenia eta Azer-baidjangoeekin batera Georgiako Armadari laguntza emango zio-tela iragarri baino lehenago ere, hainbat unitate akorazatu mugit-zen hasi ziren eta ofentsibaren zenbait puntutan Errusiaren blindatu eta destakamentuak

ikusi zituzten. Horretarako, Georgiako bu-ruzagiak Errusiarekiko zuen kanpo politikaren oinarrietan uko egin behar izan die, hain zuzen bere independentzia politikozaren zati batekin gauza bera egin duela esatearen berdimisua dena. Xevardnadzek Georgia Estatu In-dependenteen Komunitatean (EIK) sartu du, nahiz eta beti ho-ren aurka egon, eta amore eman du, gainera, bere herriaren Errusi-arek izango duten presentziari dagokionez, gero eta handiagoa izango baita. Horretan gutzian Errusiako lehendakaria da irabaz-le handia. Ieltsinenak berri ere bi karta sortarkein jokatzea lortu du, aurrerariaren kartak zein ziren jakinik gainera. Abkhaziar sepa-ratistek garaipena lor zezaten bere laguntza eman ondoren edo hitz emanda zuten bezala hori ebitatzeko, behintzat, ezer ere egin gabe egon ondoren, fruta heldu eta bere eskuetan noiz erok-iko egoeta besterik ez du egin behar izan.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Ongi etorri hegaziok!

Udaberrian jaio ziren kume ederrak gure lur gaixoa ezagutzen hasi dira. Orain dela gutxi arte amarekin pozik jolasean zebil-tzan horiek gaur gure mendiak zeharkatze-ko orduan non ezkatatu ez dakite. Egun *haue*tan, beda zabaldu denean, ehiztariek mendira joko dute, gure faunaren egoera penagarria ahaztuz, aurrean aurkitzen duten gutzia botatzeko prest. Bertako fauna hain urria bada ere, gure lurraldean desagertzeko zororian aurkitzen diren zenbait espezi-aren ehiza haimenduta dago. Hau gutxi bada ere, nazio eta herrialde askotan altxor bezala babestutako hegaztiak inolako zentzurik gabe hiltzen dituzte.

Gogoratu behar da, aurreko urtearen le-hen ehiza egunean babesturiko zazpi he-gazti zaurituak izan zirela Bizkaian... Bada garaia bukatu artean zauritu edota hil ziren babestutako hegazti kopurua asko ugari-tu zen.


Askotan entzun izan dugu «ehizak oreka ekologikoa mantentzen duela». Baina gure faunari begirakada bat egitea besterik ez dugu argudio hau hankaz gora uzteko.

Beste askotan legeak ere aipatzen dira, baina erakunde ofizial eta ehiztarien artean eginko ehiza legeak 'motz' gelditzen dira. Legeak eta arauak asko dira. (EE Eren 79/409 direktiba, 4/89 legea, Bernako Komenioa, 1095/89 Dekretua, EE Eren 90/22 direktiba, 27/3/89 Legea...) baina, zenbat

errespetatzen dira? Aspaldiko ohitura?, ki-rola dela? Serioak izan gaitzen. Ehiza gi-zarte honek duen portaera tamalgarri bat besterik ez da, poliki poliki alde batera uz-ten joan behar dena. Animalia eta ehiztari ez garenon sukubi-deak zapalitzen dituzte onartezinak suerta-zen diren argudioak erabiliz. Suerte handia opa diegu gure lurraldea zeharkatzen auzartzen diren hegazti migra-tzaile gutzietan eta ea aukera daukaten berai-n negu tokietara iritsi ahal izateko. Guk eko-logistok, gure esku artaren dagoen gutzia egingo dugu beraien bizitza ziurtatzeko.

ERLANTZ ALTUNA
Donostia


GAIA JARRITA



Greba Unibertsitatean

Tasak igotzen dira jaunak urte urte, aurtengoakin markak hautsi dizkigute. Protestatu dezagun bai nik eta zuk 'e, zeinek ikas dezake urearren truke, Unibertsitatea klasista nahi dute.

LONTXO ABURUZA



Batzorde-Patekidea: 72564 E / Lege Gordinaiu: SS 800/90



OJDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDIA

Kontseilari Ordezkarria: ISAKI UREA

Gereñetik: FERMÍN LAZKANO

Zuzendaria: MARTELLO OLABENDI

Zuzendariordea: LUZIAN ETXEPARELLA

Publikatzailea: MARI JOSU SARASA

Espainiako Publikatzailea: PLD UJUELAS

Capital: Huxta 7.2a 20020-Matxan 7.31 553.1.01. Faxa: 40.596.26.29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialeko 01-02, Pabillioak / 20180 Lesarri-Oria / 7. 37 15 45 / Faxa: 36.54.93

Egoitza soziala, Publikatzailea eta Administrazioa: Antso Jakintsua, 16.1 / 20010 Donostia / 7. 46.90.21. Faxa: 43.50.77

Araba: San Antonio, 201.01018 Gasteiz / 7. 23.38.72 / Faxa: 23.38.75

Nafarroa: Iratxe Mnasuegu 45. 13.esk. / (Iratxe) dorrea / 31011 Iruñea / 7. 17.80.7879 / Faxa: 17.80.77

Bizkaia: Zabalburu Eparantzia, 2.1. ezkerrean / 48003 Bilbo / 7. 410.40.46 / Faxa: 410.37.15

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecux 14. 1 / 503 Posta Kuxutilla, 64110 Bagnas / 7. 59.59.55.75 / Faxa: 59.25.75.11